



## ARNASAN BOTATAKO HIDROGENOAREN TESTA HAURREI

PEDIATRIA ZERBITZUA

### Zer da arnasan botatako hidrogenoaren testa?

- Arnasan botatako hidrogenoaren test deritzon miaketa azukreekiko intolerantzia diagnostikatzeko erabiltzen da, batez ere laktosarekikoa diagnostikatzeko. Intolerantzia hori duten pertsonetan, hesteko hidrogeno-kantitatea areagotu egiten da, eta arnasaren bidez kanporatzen da.
- Proba egiteko, azukre-kantitate jakin bat hartzen da, pertsona bakoitzaren pisuarekin proportzionala dena; gehienez, 250 cc uretan disolbatuta egoten da. Gero, biriketako airea botatzen da hidrogenoa neurtzen duen aparatu bati konektatuta dagoen ahokotik.
- Azukrea hartu aurretik eta azukrea hartu eta 30, 60, 90, 120, 150 eta 180 minutura neurtzen da. Horrenbestez, probak hiru ordu iraungo du gehienez, baina emaitzen arabera, baliteke lehenago bukatzea.

### Nola prestatu proba egiteko?

- Baraurik egon beharra dago (ez hartu ezer: ez elikagairik, ez edaririk, ez txiklerik...) proba egin baino 10 ordu lehenagotik, gutxienez.
- Ezin da lo edo ariketa fisikorik egin proba baino ordubete lehenagotik, gutxienez.
- **Aurreko gauean eta probaren egunean, ahoa ongi-ongi garbitu behar da.**
- Probaren aurreko egunean, ezin dira elikagai hauek jan: zuntz ugari dutenak, zerealak, barazkiak, tipula, digestio mantsoa dakartenak (adibidez, lekaleak), opilak, labean egindako ogi freskoa, sagarrak, pizzak edo zizka-mizkak (esaterako, gusanitoak edo artoa).
- Ezin da antibiotikorik hartu proba egin baino 4 aste lehenagotik, gutxienez.
- Beherakorik ez proba baino lehen (nolanahi ere, medikuari esan behar zaio).
- Probak iraun bitartean, ezin da jan, ez ariketa fisiko gogorrik egin ez lo hartu.

### Non egingo didate proba?

- **AUOko kanpo-kontsulten eraikineko behe-solairuan (KK-AUO), 13. kontsultan.** Harremanetarako telefono-zenbakiak: 945 00 75 15 (luzp.: 812139) edo 945 00 75 00 (luzp.: 812139).
- Heltzen zarenean, jo sarrera nagusiko harrera-makinara, eta horren ostean, joan Pediatria Zerbitzuko itxaron-gelara deitzen dizuten arte.
- Artatuko zaituen profesionalak esango dizu zertan lagundu behar diozun proba egiteko.

### Zer arrisku dakartza proba honek?

- Azukreekiko intolerantzia baduzu, baliteke abdomeneko mina, beherakoa eta haizeak izatea. Sintoma horiek proba egin eta hurrengo 24 orduetan ager daitezke.

**Ohar garrantzitsua:** Proba egitera etorri ezin bazara edo hitzordua ezeztatu edo aldatu behar baduzu, deitu telefono-zenbaki honetara: 945 00 75 15 (luzp.: 812139) edo 945 00 75 00 (luzp.: 812139).